

## LORE LIKISTUA

Bide-egal nago zutik, lore likistua;  
ikus, oi zuok, aitzok!, nire samin otza.  
Ernai artu belarriz nire zin-oiua,  
poz urriz beintzat ase dakidan biotza.  
Zori aldakor! Atzo poz-irriz ezpana,  
gaur negar zoramenak nau oiñazez jarten;  
oro atsegin atzo, maitezko laztana,  
orain zaldi-apatxen otsa dot aditzen.  
Eguzkik ez illargik ez ninduan atzo,  
ez eurik ez aizerik ez nik nekerazle,  
gau-iruntzak be ezin eustan poza itzo,  
auzoko iturri-otsa bai neban gar-pizle.  
Arrats batean, baiña, bare likitsa zan  
nire biran agertu; mamu iguingarriak,  
nigana igonik, zori txarra ekar eustan.  
Eta arrezkero ditut malkotan begiak.  
Eder nindun loretan Jainkoak eratu;  
nik, edertasun ori ezaindu gaberik,  
luzaroz gura neban baratz-ertz jarraitu.  
Pizti arek, baiña, itxi nindun likisturik.  
Gerora, irriz neukan ur-zelaiak nau iguin,  
atzo kantaria zan gau-urretxindorra  
mutu dot, ni loi ikusiz beretzat ez-duin.  
Gaur nire zoria bai dala latz, gogorra!  
Zugana digot, Jauna, damuz ta errukiz,  
goiko izarki lerdenez ez naizu lardaska.  
Errudun naitzuta, begiak intz-bustiz,  
bean naukazu auzpez Zutzat negar-aska.

*Igotz*